

CIBOURE



2011ko apirilaren 11

HERRIKO KONTSEILUKO kide
jaunak eta andereak

Erref. : JMB/MHM- 321/2011

BILKURA-AGIRIA
HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA
2011ko URTARRILAREN 12AN, ASTEAZKENAREKIN,
18ETAN HERRIKO ETXEAN

BILKURAN ZIRENAK: POULOU auzapez jauna, LOLOM jauna, DUBARBIER anderea, BERLAN jauna, DOSPITAL anderea, LALANNE jauna, MACHENAUD jauna, MINTEGUI anderea, HIRIART jauna, IDIARTEGARAY PUYOU anderea, URBISTONDOY jauna, ANCIZAR anderea, IBARLOZA jauna, COSTE jauna, ANIDO jauna, HARDOY anderea, GLOAGUEN anderea, ORIVE anderea, ERRANDONEA jauna.

PROKURAZIOAK: WATIER DE CAUPENNE andereak BERLAN jaunari, CAPDEVILLE andereak HIRIART jaunari, UGARTEMENDIA andereak ANIDO jaunari.

BILKURAN EZ ZIRENAK: MADRID jauna.

BOZKETAN PARTE HARTU EZ DUTENAK: GOUAILLARDET jauna, DUGUET anderea, TAPIA anderea, BAZERQUE anderea, GOURAUD jauna, MINTEGUI jauna.

Deia 2011ko urtarrilaren 6an egina.

Guy POULOU auzapez jaunak zuzendua.

GAI ZERRENDA:

I/ Gai orokorra

1/ Tokiko Hirigintza Planaren (PLU) proiektuaren finkatzea eta hitzartzearen bilanaren egitea

BERLAN jauna bilkurako idazkari izendatua da.

I/ Gai orokorra

1/ Tokiko Hirigintza Planaren (PLU) proiektuaren finkatzea eta hitzartzearen bilanaren egitea

Auzapez jaunak prokurazioak irakurri ondoren, DUGUET andereak galdegin du MADRID jauna barkatzeko, eri baitzen.

Bilkura hastapenean, auzapez jaunak adierazpen orokor bat egin du PLU proiektuari buruz, sarri Herriko Kontseiluan aipatuko baita:

« Ziburuko PLUa gehiengoa duen gure alderdiak du bultzatu, hauteskudeetan eman genuen hitza betetzeko; hau da, gure herriko biztanle gehienei etxea ukaiteko aukera emateko, bereziki gazteei. Baina, horrez gain, PLUaren helburua gure herriari lurralde proiektu bat ematea ere bada.

PLUaren lehentasunezko 3 helburuak:

- *Ziburutarren errezibitzea eta beren etxebizitza-ibilbidearen erraztea*, Ziburuk finkatu Tokiko Habitataren Programa zorrozki aplikatuz. Programa hori Estatuak, Kontseilu Orokorrak eta Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak (Santa Teresa auzoaren antolamendua) sortu Etxebizitzarako Presazko Planarekin bat etortzen da;
- *Garapen iraunkorraren aldeko desmartxaren abiatzea*, gure paisai eta hirigintza ondarea babestearekin batera. Horregatik emendatu da gure oihan guneen azalera, eta horregatik aplikatu dugu modu boluntaristan gure ZPPAUPari dagokion araudia;
- *Lurralde koherentziarako eskeman barneratzea*, 2005ean onartu dokumentuan agertzen den gisan, eta, horrela, hirigintzaren eta habitataren ikusmolde koherenterako lurren ekintza adierazgarriaren abiatzea. Hala, kontrakotzat har daitezkeen bi asmoren bat egitea adierazten du:

/ Lurraldearen garapena laguntzeko asmoa, 1AU eremuak sortuz,

/ Hirigintza kontrolatzeko beharra, 2AU eremuak sortuz.

Helburuak, epe ertainera:

Zokoaren eraberritzea, kirol-portua handituz, aparkalekuak sortuz...

Herriak berrikitan erosi ondarea (kapera, komentua...) eta aspaldikoa (bistalekuko hilerria) balioztatzea.

PLUa 2003an eta 2007an idatzi PADDen araberakoa da guziz (Antolamendurako eta Garapen Iraunkorrerako Programak); programa horietan ziren eta PLUaren agirian jasoak diren ekintza-ardatzak Herriko Kontseiluari aurkeztuak izan zitzaizkion. »

Oroitarazi ondoren 2011ko urtarrilaren 5ean Hirigintza Batzordeak eta 2011ko urtarrilaren 10ean Herriko Kontseiluko Batzorde Orokorrak PLU proiektua aztertu zutela, auzapez jaunak hitza Zerbitzu teknikoetako zuzendari BOYE jaunari utzi dio. Azken horrek PLU proiektua laburzki aurkeztu du.

Aurkezpen horren ondotik, auzapez jaunak hitza DUGUET andereari eman dio; hau adierazi du DUGUET andereak:

« *Auzapez jauna, lehenik eta behin, jakin ezazu errespetu osoa dizugula zuri, pertsona gisa. Baina, hala ere, PLU epe aski luzeko norabide-erabaketa da (10 - 15 urte). Funtsezko*

momentua da, baita ere, borondate politiko azkar baten adierazteko; eta, noski, gure ikuspuntuak ez dira bat etortzen.
Lehenik gaia orokorrean aztertuko dugu, eta ondoren puntu zehatz batzuk aipatuko ditugu; gero, azterketa oro bezala, ondorioekin bukatuko dugu.

Azterketa orokorra

PLUaren eratzeko epea

Auzapez jauna,
8 urte, 5 hilabete, 12 egun; marka horrek Guinness liburuan agertu behar luke.
2007ko irailaren 4an, PLUa harrotasunez aurkeztu zenigun: oposizioko hautetsiek, nik barne, ez genion bermerik eman. Halere, uste genuen Ziburun, azkenean, hirigintza-arauak izanen zirela. Ohar zuzenak egin genituen, eta argi erran genuen zure PLUa ez zela bat etortzen SRU legearekin, SCOTarekin, etab. Eraitza 3 hilabete berantago iritsi zen: prefetak zure proiektuari 11 orriko oharra egin zizkion: bat ez etortzea SCOTarekin eta ZPPAUParekin, zonatze arazoak, zona akatsak, mapen irakurgarritasun eskasa, aurkezpen txostena ez aski garatua, araudi eskasa, prospektiba eskasa, etab.
Gu ez gara hirigintzan adituak, baina zuzen ginen.
Aipa dezagun, orain, 2011ko bertsioa. Hasteko, agian prefetaren ohar guziei erantzun diezue: hala ere, ohartu naiz itsas hilerria ez dela N zona batean; alta, hala galdegina izan zen. Untxineko ur-eremua, ibilbideak eta gune berdeak ere ez... prefetak berriz ere kontuan hartu beharko du.
Hitzekin jostatzea zilegi da beti; baina, auzapez jauna, erraten duzun bezala, prefetak baztertu ez badu ere, ez zen zaila PLUa ahalik eta lasterren zuzentzea; prefetaren oharren ondorioz, 3 urte gehiago landu behar izan da proiektua...

Epe luzeegi horren ondorioak

Lan handi horrek hartu duen berantaren ondorioz, etxebizitza neurriz kanpo eta molde anarkikoan emendatu da. Nahitako asmoaren ondorioa, axolagabekeriarena, bezerokeriarena ala berte? Argi da ez zaiola herriaren eta bere biztanleen interes orokorrari eman lehentasuna. Beraz, egun, PLU arras berant iristen da; berantegi. Gelditzen den tarte ttipian, zaila da bizi-kalitatearen segurtatzea eta defendatzea eta, aldi berean, legeen eta arauen errespetatzea, gero eta zorrotzagoak baitira.
Ez gara SRU legeko diru penalizazioei buruz ari, baizik eta tokiko etxe eskasari buruz.

Hitzartzea

Ohartu gara hitzartzeari buruzko L300-2 artikulua ez dela bete.
Alta, auzapez jauna, hori funtsezkoa da zure proiektua burura eramateko.. 2002an, jada, a minima finkatu zenuen: ohar erregistroa, hitzartze txostena, herriko aldizkarian informazio gutunak. Baina, 2007an, ziburutarrek ez zuten neholako informaziorik ukan. Herriko aldizkaria ez denez erregulariki argitaratu (bakar 1, 2009 eta 2010erako!), ezin zenien biztanleei egoeraren berririk eman, eta, ondorioz, idatzi duzun bezala, oharrik ez da izan erregistroan 2007. urteaz geroztik. Gaia ezagutzen zutenak baizik ez dira joan zuregana. Zure lehen egin beharra huts egin duzu.
Egun, eguerditan, Santa Gurutzeko biztanleen 2. gutun bat iritsi zait. Beren lehen gutuna abenduaren 8koa zen, eta ez zenion erantzun ere egin; alta, hitzartze eskasari buruz erraten dugunarekin bat egiten du.
Horrez gain, gure oposizioa ez duzu kontuan hartu. Asteleheneko Herriko Kontseilu pribatuaren bilkura ez da nehola ere aski. Gehiengo alderdiko hautetsiek beren aldetik lan egin badute ere, hirigintza batzordea ez da sekulan gai horri buruz bildu. Bertzalde, erran behar da txostena 2010eko abenduaren 27an ukan genuela; beraz, marka guziak hautsi behar izan ditugu txostenaren aztertzeke: 16 eguneko epe laburra, mapak, araudiak, txostenak eta abar aztertzeke... baina, guk, abiadura-marka hautsi dugu... Laster egin behar zen, zinez laster, urtarrilaren 13a aitzin; bestela, 2. Grenellean sartu beharko genukeen. Azterketarako epea ezin zitzaigun luzatu. Alta, urtarrilaren 7an, ostiralarekin, epea gibelatu zela

jakinarazten zizun gutuna eskuratu zenuen. Hala ere, guk ezin izan dugu aztertzeko epea luzatu. Zergatik zenuen halako presa?

Etxebizitza sozialak

*Aipa dezagun, orain, etxebizitza sozialen gaia: funtsezko gaia da Ziburun; izan ere, gure herria EHHHEko ikasle txarrena baita (SRU legeko %20etatik, %9 baizik ez). Zaila da jakitea zertan garen, xuxen, egun. 2011ko zentsuaren ondotik xehetasun gehiago ukanen dugu; orain arte, 2007ko zenbakiekin ari baikara. Etxebizitza sozialak, beraz! Egun, **293 etxebizitza** sozial ditugu alokatzeko (datu hori txostenean ez da argi ageri....); segur gara zenbaki horretaz. SRU legearen arabera, etxebizitza nagusien %20 alokairuzko etxebizitza sozialak izan behar dira. 2008ko abenduaren 22an, **469** etxebizitza gutiago zela erran zenigun (2007/01/01ean), eta 2008 eta 2010 artean **71** sortzeko erabakiari baiezkua eman genion. Zure txostenaren arabera, 3 urtez, **45 etxebizitza** sozial baizik ez dira sortu; eta, gainera, ez dakigu horietatik zenbat diren alokatzekoak. Beraz, dena den, auzapez jauna, helburuetatik biziki urrun zaude. Noski, 2011. urtea etxebizitzaren urtea izanen da Ziburun. Ba al zenuen bertze aukerarik??? Hainbat eta hainbat aldiz hitz eman dituzu gauzak, eta urtero errepikatu. Ziburutarrek zain dira, auzapez jauna. Eta haiek ez dute gauza handirik ikusten.*

Béthanie, Azkena eta Untxinekin, papur batzuk bilduko ditugu (hogeita hamar bat), baina ez 2011rako.

Gisa guziz, jakinez etxebizitzaren kasik erdia bigarren etxeak direla, argi da ez goazela aitzina, eta %40 horiek gutienekoa direla: eremu komuna xahutzen dugu, eta egoera ez da hobetzen. »

Auzapez jaunak ohar horri erantzun dio, DUGUET anderearen erranak ukatuz.

Etxebizitza sozialari buruz, auzapez jaunak zehaztu du alokairuzko 94 etxebizitza sozial eraiki direla Zubiburun, eta hogeita hamar baino gehiago pentsatuak direla Béthanie-n, Untxinen eta Askenan. Oroitarazi du 2001ean, bera auzapez izendatu aitzin, SRU legeak %20ko etxebizitza sozial tasa finkatua zuela, eta herrian %5 baino doi bat goragoa zela. Egun, %9koa da; eta bihar, Santa Teresako programa bururatzean, %15etik goiti izanen da; hots, hiru aldiz hobe.

“Etxebizitza anarkikoa”-ri buruz, DUGUET andereari galdegin dio adibide batzuk emateko; beharbada ALDAY jaunak Zokoa – Untxinen egin proiektua aipatzen du; baina 2001eko martxoan iristean proiektua egina zen, eta eraikitzeko baimena izenpetu behar izan zuen.

Hitzartzeari buruz, auzapez jaunak zehaztu du ziburutarrek eskaera bat baino gehiago egin dutela, eta horietako bat bere alderdiko kide batek egin zuela, 2007 baino aise berantago.

Azkenik, auzapez jaunak zehaztu du prefeta jaunak ez duela batere baztertu PLU proiektua, baizik eta, PLU proiektuen prozedura guzietan bezala, oharrak eta iradokizunak helarazi dizkiola herriari.

Auzapez jaunak penaz hartu du DUGUET anderearen fede txarra.

DUGUET anderea:

« **Zenbait puntu, xeheki**

Santa Teresa auzoa

Santa Teresa! A, zer etxebizitza- multzoa: 449, denak barne. Aire garbi bufada? Ez, behintzat, goizetan sortuko diren auto-lerroetan... 2013an, 2014an??

Errekorra iragarri duzu (hor ere), etxebizitza sozialentzat: **157** . Bai, 449ren gain 157.

Zer erran duzu, %40?? Atera ditzagun kalkulagailuak: $157/449 \% = 34,97 \%$

A, bigarren etxeak izanen dira? Har ditzagun berriz kalkulagailuak, %40ra iristeko: 157 /390. Beraz, 59 etxebizitza bigarren etxeak izanen dira.

Nola esplikatzen ahal diegu gure herriko gazteei eta bertzeei ezingo dutela denek Ziburun gelditu, bigarren etxea nahi dutenei tokia utzi behar zaielako?

Har ditzagun zenbakiak bertze ikuspuntu batetik: soziala (erosteko eta alokatzeko) $157 + 57 = 214$. Pribatua: **235**.

Hor, kontuek ez dute ziburutarren eskaera betetzen. 214 poztuko dira, baina zenbat geldituko dira? Zenbat ziburutar gazte daude zain eta itxaropentsu?

Zenbat zahar dira, ere, beren soldata apalekin, etxebizitza bat noiz erosten ahalko duten zain? Zenbat bikote gazte bizi dira oraino burasoen etxean?

Kontatzeko moldearekin josta zaitzke, baina funtsezkoa dena da bertakoei etxebizitza proposatzea.

Argi da PLUa auzo horren inguruan idatzi duzula, eta ez alderantziz. ZUP berri bat ukanen dugu: 4 estaiako zenbait etxe (14 m-ko altuerakoak), berantaren errekuiperatzeko. Baina, erran duzun bezala, Ziburun ezingo duzu sekulan %20en legea bete. Beraz, gizarte-nahasketa aipatuko didazu. Baina lehentasuna errealitateak eta pertsonen interesak dute. Herriko PLUa da, eta ezin duzu bertze herriekin kontatu zure betebeharren betetzeko.

Zure aurkezpen-txostenean, 1 AUI 2 sektoreei buruz, ez duzu batere aipatzen neurri horretako auzo guzietan beharrezkoa den gizarte lotura: joko eremuak, guno berdeak, denendako eremuak, etab. Alta, SCOTeko 7. orrian agertzen dira, taldeko bizitokiak dituzten hirigintza-garapenen atalean. Ongi litzateke, eta, batez ere, beharrezkoa litzateke, lerro batean hori aipatzea, ez baitute sustatzaileek pentsatuko... hirigintza-azterketarekin batera paisaia-azterketa egitea agertu beharko litzateke.

Gure ustez, lotura bat egin behar zen ondoko herriarekin, auzo hori elkarrekin kontuan hartzeko, zirkulazio-arazoak sortuko baititu. »

Santa Gurutzeko biztanle batzuen galdeei buruz, auzapez jaunak erran du erantzun bat ukan dutela, 2011ko urtarrilaren 4an.

Auzapez jaunak erantzun du DUGUET anderearen interpretazioa guziz makurra dela. Etxebizitza sozialen ehunekoa etxebizitza nagusien arabera kalkulatu da (horrela finkatua da SRU legean), eta ez eraikiko diren etxe guzien arabera; bestela, etxebizitza sozialak bi aldiz kontatuko lirateke!

Santa Teresa auzoko gizarte-nahasketari dagokionez, noski, herriko gehiengoak kontuan hartuko du; baina, oraingoz, ez da ez lursailak zatitzeko, ez eraikitze baimenik eremu horretan, eta, beraz, goiz da gai horri buruz ondorioen ateratzeko.

DUGUET anderea:

« **Lur unitateak**

UA2 zonari buruzko araudiko 26. orria

UA2 artikulua: Lurra okupatzeko eta erabiltzeko baldintza bereziak.

5. pasartea

« Bizitzeko eraikinak, programako SHONaren %40 alokatzeko etxebizitza sozialen sailekoak badira (PLUS, PLAI, PLS), **baldin eta proiektuari dagokion SHON azalera 700m²koa edo gehiagokoa bada** »

Beraz, adibidez, 70 m²ko 10 T3 eraikitzen badira, ez da etxebizitza sozialik proiektuan. Beraz, herrian etxe bat xerkatzen duten bikote gazteen arazoa ez da hobetuko.

Hori kontuan hartuta, 5. pasarte horri hori gehitzea nahi genuke: « eta, 400 eta 700m² arteko azalerakoentzat, alokairuzko etxebizitza soziala beharrezkoa izatea »

Gauza bera, UB eremuari buruzko araudiaren 29. orrian: UB2 artikulua, 3. pasarte

Gauza bera, UC eremuari buruzko araudiaren 32. orrian: UC2 artikulua, 3. pasarte.

Gauza bera, IAU eremuari buruzko araudiaren 44. orrian: IAU2 artikulua, 3. pasarte »

Auzapez jaunak oroitarazi du Angelun gutieneko hori 2 000 m²ra pasatu dutela.

DUGUET anderea:

« UA eremua: saltegiak etxebizitza bilakatzea

UA eremuan saltegi batzuk etxebizitza bilakatzeari buruz, ez dugu fitsik atzeman araudian, ez eta aurkezpen txostenean ere. Zein da zure gai horri buruzko iritzia? »

Saltegiei buruz, auzapez jaunak zehaztu du PLUak arau zorrotzak finkatuak dituela garajeak etxebizitza bilakatzeari buruz. Bertzalde, zehaztu du saltegien inbentario bat egina izan dela, eta PLUko zonatzeari herri erdiguneko zenbait tokitan saltegiak etxebizitza bilakatzea debekatua dela.

GOURAUD jauna ados da.

DUGUET anderea:

« Santa Gurutzeko 1 AU eremua

Biziki arau guti da, sustatzaileentzat auzo erraldoiak erraztearen alde. 5000 m², gutienez, eraikuntzentzat; eta ez ditut berriz aipatuko Gouraud jaunak egin berri dituen proposamenak. Hirigintza proiektua epe luzeagokoa denez, beharbada eremu hori sinplifikatzea pentsatu behar genuke.

Zokoako UPM eremua

Txalotzen zaitugu, eremu hori sustatzaileei ez irekitzeko borondate politikoa duzulako. Eremu horretan diren etxebizitzaren jabeek ez dute galerarik ukanen saltzen badute.

SCOT legea

SCOT legegari buruz, baieztatu zenidan ez zela beharrezkoa berrikustea. Alta, EHHHEko presidentek, 2010eko otsailaren 25eko elkargoaren kontseiluan, ondoko hilabeteetan lege hori berrikustea aurreikusi zuen. Zertan da EHHHE, gai horretan? Eta, EHHHE aipatzen dugunez, zertan da aglomerazio-elkargoa?

Oihan eremu sailkatuak

Ongi da A laborantza-eremuak argiki markatzea (lehen ez zen hala); baina ez dira xuxen bat etortzen laborantza ganbarak PACean bildu eremuekin, hau da, laborariak argiki ustiatzen eta deklaratzeko dituzten eremuekin. Aldiz, oihan eremu batzuk A edo AU2 sailkatuak dira; alta, N markatuak izan behar lukete.

NH eremuak

Nh eremuak 2007an ez ziren onartuak izan. Alta, zonatzeko berbera egin duzu berriz. Azterketan arabera, emaitzak ez dira arauen araberrak; beraz, zergatik mantendu dituzu (erran duzu horietako 2 saneamendu kolektiboari lotzen ahalko zaizkiola; eman dezagun. Eta bertzeak?).

SAGE Côtiers Basques erakundeak (uraren kudeaketarako) araudi orokor bat zehaztu behar du, herrietako PLUekin kontrajarria izan dena. Lerro bat gehitu al duzu horretan?

Zokoako kirol portua

Badakizu kirol portua ezartzearen kontra garela arras. Prefetak 2007ko oharretan eta Itsasbazterraren Legeak “euskal kostaldean itsasbazterraren legea aplikatzeko koherentzia eskema”-n Ner eremu bat gomendatzen dute. Hala ere, 2 AUp eremua sortu duzu. Bertzalde, EHHHEk eta Herri arteko sindikatuak eremu berean egin bi ikerketak ere salatzen ditugu. Diru publikoa arrazionalizatu beharko litzateke, eta hitzartze bat antolatu. Gainera, nazioarteko Deloitte bulego famatuak (EHHHE) aurkeztu duen proiektua, gure ustez, ametsa edo delirioa da. Norbere lurraldearentzat asmo handiak ukaitea ongi da, baina sobera ere... (ikerketa 3 fasetan, EHHHEn: lurraldeko diagnostikoa 09/07/23an aurkeztu zuten, lehentasunezko ardatzak 09/12/17an finkatu, eta ekintza-plana 10/02/11n sortu; “ikerketa-bulego horrek 2010ean lanean segituko du”, ikus 2010/02/25eko elkargoko kontseilua). Horrez gain, herri arteko sindikatuaren ikerketan, ingurumenaren kezka ez da batere aztertu; dagokien zerbitzuei galdegin diegularik... berantago eginen zutela erantzun digute. Proiektu mota horiek pentsatzeko molde berezia da, zinez, batez ere garai honetan.

Barnier legeari dispentsa

Zure dispentsa ukaiteko txostenari buruz, gure ustez, funtsezkoa da azpimarratzea herria kutsadura-arazoaren jakitun dela, bereziki nitrogeno-dioxidoari buruz. Airaq erakundearen ikerketen arabera, Biriatu-Ondres tartean, maila 2 aldiz goregia da. Bestalde, A63 aldean horma itsuak ezartzeko obligazioa azpimarratu beharko litzateke eta artisauei osasun-arriskuen berri eman (birika-arazoak).

Artisautza-eremu ttipi horren behar handia dugu, Olaizola enpresaren kokatzeko eta bertze baliabide ekonomiko batzuen sortzeko. Baionan Ikea ezartzeko, dispentsa ukan dute, baina ez adostasun osoz; hau da, duda batzuekin. Airaq erakundeak A63ko nitrogeno-dioxidoaren espazialtasunari buruz egin ikerketa sarean kontsulta daiteke, eta nik ere pasarazten ahal dizuet, baita inkesta-komisarioaren dudak ere.

Tenis estaliaren eremuari dagokionez, zehazten dizuet 2005eko ekainaren 29an erabaki genuela eremu hori kasino bat egiteko atxikitzea. Beraz, ongi litzateke erabaki hori deuseztatzea.

Galdera osagarri baina garrantzitsu bat: zertan da Ncuy eta Ncuyi bi eremuen saneamendua?

SCOTaren 257. orriaren arabera, hau da, eremu ekonomikoari buruzko pasartearen arabera, PLUan instalazio sailkatuen harrera, ehun ekonomikoaren trinkotzea eta habitataren presentziaren mugatzea sartu behar dira. Eskertuko genizuke horren baieztatzea.

UP arrantza-portu eremua

SCOTeko aurkezpen-txostenaren 257. orrian zera agertzen da: “portu-eremuak babestu beharko dira, kalitatezko arrantza aktibitatea mantentzearen alde egiteko”. Hitzartzerik hasi al duzu arrantza sail osoarekin? (ikus gure toki erresebatuei buruzko eskaera)

Aparkalekuak

Noiz eta nola finkatuko da aparkalekurik ez egiteagatiko ordainsariaren zenbatekoa? »

MINTEGUI jaunak galdegin du nola kalkulatu den penalizazio horien zenbatekoa, eta eremuen arabera moldatzen ahal direnez.

LALANNE jaunak zehaztu du zenbatekoa Donibane Lohizunekoaren gisakoa izanen dela.

DUGUET anderea:

« Toki erresebatuak

Toki erresebatuek norabide politikoa agerian uzten dute eta gerorako eremu publikoak ahal bezainbat babesteko pentsatuak dira. Nahi genuke gune hauek toki erresebatuetan sailkatzea:

- Blokeen etxea (2026 eta gero UPMeremuan)
- Borda Zahar (Léo-Lagrange kluba)
- Alokatzeko etxebizitza sozial guziak
- Zokoako DDEaren eraikin ohia
- PEPen eraikina
- Encan-eko frontoia
- Béthanie
- Récollets (CCIk erosia; ikus 12. puntua)

Oinezkoendako bideak

Oinezkoendako edo bizikletendako bideak erreserbatzea komeni litzateke, herri bidexkekin edo bidexka pribatuekin lotzeko (Bordagaineko mendixkan, Zokoan, autobide gainean, bartak barne).

Nomaden gunea

Herriko Kontseiluan erran direnak erranik ere, tokia ez da aldatu; urtero, lur horretan uholdeak izaten dira, eta gas-linea azpitik pasatzean da; gainera, AHTa egiten bada, bere biaduktua gainetik pasatuko da. »

MINTEGUI jaunak jakin nahi du zertan garen herri elkargoa aglomerazio elkargo bilakatzeari buruz, eta aldaketa horrek ondorioak ukanen dituen hirigintzan eta herriko oposizioen ordezkaritzan.

Auzapez jaunak jakinarazi du momentuko pixka bat blokatuak garela, herrien demografia-mailak direla-eta, batek 15 000 biztanleko muga gainditu behar baitu. Hirigintzari dagokionez, auzapez jaunak ezetz erantzun du.

Laborantza eremuari buruz, MINTEGUI jaunak pena atzematen du N eta A eremuak ez xuxen bat etortzea.

Auzapez jaunak zehaztu du MSARI deklaratu azalera errealetan oinarritu garela, baina balitekeela hori aldatzea, erakunde horrek inkesta bat hasi baitu. Emaitzak martxo hondarrean ukan behar genituzke, eta, noski, PLUak emaitza horiek kontuan hartuko ditu.

MINTEGUI jaunak Bordagaineko oinezkoendako bideak aipatu ditu.

Auzapez jaunak erran du dagokien zerbitzuak gai horiek guziak aztertzen ari direla, Kontseilu Orokorrearekin eta Herri Elkargoarekin lankidetzan.

MINTEGUI jaunak galdetu du nola onar daitekeen nomadendako eremu bat, gas-bide baten ondoan eta maiz uholdeak dituen lur batean.

DUGUET anderea:

« **ONDORIOA**

Azkenik, pena atzematen dugu Ziburuko herria ADEMEko kide ez izatea, hirigintza eta ingurumen gaietan laguntza ematen ahalko bailiguke.

Auzapez jauna, denbora eskasagatik ezin izan dugu bururaino joan, eta zinez dolu dugu hitzartzerik ez baita izan.

Gero eta maizago, funtsezko gaiak EHHHEan aztertzen dira, eta guk ez dugu gertatzen denaren berririk. Informazio batzuk PLU horren kari iritsi zaizkigu.

Hautetsiak ez dira Ziburuko biztanle guzien ordezkari, eta hori demokraziaren kontrakoa da arrunt; artetik, berriz galdegiten dugu zure iritzia araberakoa soilik ez den ordezkari titular baten ukaitea.

PLUa denendako zuzenak diren arauz osatu oinarritzko dokumentua izan behar da, eta egoera erreala kontuan hartu behar du, egoera hobetzen saiatzeko. Gure ustez, probetxu gehien ateratzen dutenak ez dira ziburutarrik; bertze interes batzuek dute lehentasuna.

Eztabaida luze horretan parte hartu nahi izan dugu, eta orain bukatzen ari da.

PLU hori zurea da, ez da gurea.

Inkesta publikoaren ondoren horretaz berriz eztabaidatzen ahalko dugu.

Baina, egun, kontseiluko mahaitik joanen gara, ez baitugu erabaki horrekin zerikusirik ukan nahi, gaia arras zabala eta Zibururendako zinez garrantzitsua baita eta 3 urtez –batzuentzat 9 urtez- ez diguzuelako kasurik egin.

Mila esker arretagatik. »

DUGUET andereak eta bere taldeak erabaki dute bozketan ez parte hartzea eta erabaki-mahaitik joatea.

GOUAILLARDET jaunak hitza hartu du, adierazteko beti defenditu dituela Ziburuko herriaren interesak. Baina, PEPen elkarteko presidente ere badenez, PLUa finkatzeko bozketan ez duela parte hartuko.

Ohar horien ondotik, auzapez jaunak erabaki hau bozkarazi du:

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio zein baldintzatan eratu zen PLU proiektua eta egun zertan den; gero, proiektua aurkeztu du.

Auzapez jaunak esplikatu du, hirigintza-kodeko L 300-2 artikulua arabera, PLU proiektuaren eraketari buruzko hitzartzearen bilana egin behar dela, eta, kode bereko L 123-9 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak dokumentu hori “finkatu” behar duela eta hirigintza-kodeko L 121-4 artikuluan aipatuak diren pertsonen jakinarazi behar zaiela.

Herriko kontseiluak,

Kontuan hartuz Hirigintza Kodea, batez ere L 123-1 artikulua eta ondokoak, R 123-1 artikulua eta ondokoak,

Kontuan hartuz PLUa eratzeko agindu zuen 2002ko uztailaren 26ko Herriko Kontseiluaren erabakia,

Kontuan hartuz 2004ko irailaren 22ko eta 2007ko otsailaren 14ko Herriko Kontseiluko eztabaidak, Antolamendu Proiektuaren norabideei eta Garapen Iraunkorrerako norabideei buruzkoak,

Kontuan hartuz PLUa finkatu zuen eta hitzartzearen bilana egin zuen 2007ko irailaren 4ko Herriko Kontseiluaren erabakia,

Kontuan hartuz 2007ko ekainaren 27ko Herriko Kontseiluak erabaki zituen perimetro handitzea eta ZPPAUPeko arau berriak, 2007ko urriaren 18ko Ondarearen eta Guneen Eskualdeko Batzordearen erabakia, 2008ko martxoaren 27ko Pirinio Atlantikoetako Prefet jaunaren erabakia eta 2008ko apirilaren 1eko Ziburuko auzapez jaunaren erabakia,

Kontuan hartuz 2008ko urriaren 30eko erabakiaren bidez Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak onartu PLHa,

proiektuaren kalitatea eta hedapena hunki lezaketen aitzinamendu tekniko eta juridikoak ahal bezainbat kontuan hartzeko (ASF A63endako PIG, AHTaren Frantziako Hego Mendebaldeko Proiektua, Zokoako auzo osoa balioztatzeko definizio-azterketa...)

Kontuan hartuz ingurumenaren I. Grenelle-a gauzatzeari buruzko 2009ko agorrilaren 3ko 2009-967 programazio legea, hirigintza kodean garapen iraunkorrari buruzko helburuak azkartu baitzituen,

Kontuan hartuz 2011ko urtarrilaren 4an biztanleen eskura utzi erregistroan ez dela ohar berririk izan,

Auzapez jaunaren aurkezpena entzunik,

Kontuan hartuz Tokiko Hirigintza Planaren proiektua (PLU) eta, bereziki, Antolamendurako eta Garapen Iraunkorrerako Proiektua, aurkezpen txostena, dokumentu grafikoak, araudia eta eranskin guztiak,

Kontuan hartuz 2011ko urtarrilaren 5eko Hirigintza Batzordea,

Uste baitu proiektu hori prest dela eraketari dagozkion pertsona publikoei, herri mugakideei, interesdun EPCI-ei, dagokien agintariei eta kontsultatzea galdegin duten erakundeei helarazteko,

Gogoetatu ondoren,

- **FINKATU DU** Ziburuko herriko PLU Tokiko Hirigintza Planaren proiektua, honi erantsita agertzen den gisan;
- **ZEHAZTU DU** Tokiko Hirigintza Planaren proiektuaren berri emanen zaiela, beren iritzia ukaiteko:
 - ✓ hirigintza kodeko L 121-4 artikuluan aipatuak diren pertsona publiko guziei,
 - ✓ herri mugakideei eta kontsultatuak izateko galdegin duten erakundeei,
 - ✓ eskaera eginen duten elkarte onetsietako presidenteei.
- **ZEHAZTU DU** hirigintza zerbitzuaren usaiako ordutegian biztanleek Tokiko Hirigintza Planaren proiektua kontsultatzen ahalko dutela,
- **ZEHAZTU DU** Tokiko Hirigintza Planaren proiektua Herriko Etxean afixatuko dela, hilabete baterako.

ONARTUA

DUGUET, TAPIA eta BAZERQUE andereek eta GOURAUD eta MINTEGUI jaunek ez dute bozketan parte hartu eta erabaki-mahaitik joan dira.

GOUAILLARDET jaunak ez du bozketan parte hartu.

Bilkura bukatu da, 20:00etan